

3.4.3. UDAL-AREAK. HERRITARREN SEGURTASUNA ETA ELKARBIZITZA. BIDE-SEGURTASUNA

ZIRKULAZIO-ISTRIPUAK

2017an, Iruñean 2.722 auto-istripu gertatu ziren. Horietatik, 164 harrapatze-istripuak izan ziren. Istripu gehienetan kalte materialak baino ez ziren izan (2.109), baina bostetatik batean zaurituak ere izan ziren. Bost istriputan hildakoak izan ziren. Istripuetan, guztira, 608 zauritu izan ziren; gehienak arinak (565), baina 43 larri ere izan ziren, 5 hildakoez gain.

Harrapatze-istripuei dagokienez, izandako 164 horietatik 100 semafororik gabeko oinezkoentzako pasabideetan izan ziren, 34 galtzadan, 20 espaloian eta oinezkoentzako bideetan, eta azken hamarrak semaforoak dituzten oinezkoentzako pasabideetan.

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Guztira istripuak	3.004	2.786	2.585	2.757	2.557	2.273	1.928	2.123	2.257	2.554	2.722
Harrapatze-istripuak	166	165	171	143	153	146	141	144	142	145	164

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Hildakoak	4	3	0	6	3	5	2	1	2	3	5
Zauritu larriak	71	69	61	33	26	22	31	37	31	45	43

BESTE DATU BATZUK

ETILOMETRIAKO ETA ESTUPEFAZIENTEEN KONTROLAK. 2017an, 249 etilometria-kontrol egin ziren, zirkulazioko arau-hausteetan, istripuetan zein prebentzio-kontrolatan eginda. Guztira, 22.960 proba egin ziren, eta horietatik 22.397k emaitza negatiboa izan zuten, eta 633k positiboa. Halaber, 162 droga-proba egin ziren; 65etan emaitza positiboa izan zen. Proba guztietatik 73 auzitegiara igorri ziren.

BIDE-SEGURTASUNAREN AURKAKO DELITUAK. 2017an, Iruñean bide-segurtasunaren aurkako 318 delitu izan ziren; hau da, 2016an baino 36 gehiago.

	2016	2017
Etilometria positiboak	179	205
Epaiketa bidez kentzea		
Baimenik ez izatea		76
Zuhurtziagabekeriak eragindako lesioak	16	15
Alkoholemia-kontrola egiteari uko egitea	8	11
Ausarkeriaz gidatzea	5	4
Zuhurtziagabekeriak eragindako homizidioa	3	5
Gai estupefazianteen eraginpean gidatzea	1	1
Guztira	282	317

ZIRKULAZIO-KONTROLAK. 2017an, 2.423 zirkulazio-kontrol egin ziren honako hauei dagokienez: abiadura radarrekin kontrolatzea (1.311), dokumentazioa (47), eskola-garraioa (47), hainbat arau-hauste (244), etilometriak (249), telefonoa (118), segurtasun-uhala (118), oinezkoentzako pasabideak (94) eta bizikleta (195).

RADAR MUGIKORRAK ETA KABINAK. Zirkulazio alorreko talde teknologikoak radar mugikorrarekin 318.720 ibilgailu kontrolatu ditu 1.311 kontroletan, eta 2.761 salaketa izan dira horietan. Horrez gain, kabina finkoetan dauden radarrek 4 milioi ibilgailu baino gehiago kontrolatu dituzte, eta horietako 4.860 salatu dituzte.

VISUAL CAR. «Visual car» tresnaren bidez (ibilgailu ofizial batean ezarritako ekipoa, ibilgailuen matrikulak irakurtzea ahalbidetzen duena) aseguratutako 55 auto, lapurtutako 1 eta gaizki aparkatutako 92 atzeman ziren, baita salaketa jarri ere. Halaber, semaforoetan jarritako argazki-gorri izeneko sistemaren bidez, 6.817 irudi aztertu eta 706 salaketa egin ziren. Autobus-geltokiaren aurrean, badago aldi baterako aparkatzeko moldatua dagoen eremu bat, bidaiarien joan-etorria errazteko; bada, eremu horretan 175 salaketa jarri ziren.